

ALEJANDRO ECHEVARRÍAREN ARAUDIA- PRESTAZIO
ZEHAZTUA, ALEJANDRO ECHEVARRÍA ENPLEGU BGAEn
INTEGRATUTAKO ENPLEGUKO GIZARTE-
AURREIKUSPENERAKO PLANA

GIZARTE-AURREIKUSPENERAKO PLANAREN ARAUDIKO ARTIKULUAK

1. ARTIKULUA. PLANAREN IZENA.
2. ARTIKULUA. PLANAREN XEDEA.
3. ARTIKULUA. PLAN MOTA.
4. ARTIKULUA. PLANAREN IRAUPENA.
5. ARTIKULUA. BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK.
6. ARTIKULUA. BAZKIDE ETA ONURADUNEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.
7. ARTIKULUA. PLANAREN BAZKIDE ETA ONURADUNENTZAKO INFORMAZIOA.
8. ARTIKULUA. PLANERA ATXIKITZEA.
9. ARTIKULUA. BAZKIDE ETA ONURADUNEN BAJA.
10. ARTIKULUA. PLANAREN FINANTZAKETA.
11. ARTIKULUA. EKARPENEN ARAUBIDEA.
12. ARTIKULUA. BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA.
13. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN ARAUBIDEA.
14. ARTIKULUA. PLANAK ESTALITAKO KONTINGENTZIAK.
15. ARTIKULUA. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODUA.
16. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK ESKATZEA.
17. ARTIKULUA. ONURADUNAK IZENDATZEA.
18. ARTIKULUA. INBERTSIO-POLITIKA.
19. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOEN ERRESKATEA ETA MOBILIZAZIOA.
20. ARTIKULUA. PLANAREN ADMINISTRAZIO, KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDU GASTUAK.
21. ARTIKULUA. BALORE-GORDAILUA.
22. ARTIKULUA. KONTABILITATE ETA AUDITORETZA SISTEMA.
23. ARTIKULUA. ARAUDIA ALDATZEA.
24. ARTIKULUA. PLANA AMAITZEA ETA LIKIDATZEA.
25. ARTIKULUA. GATAZKA ETA ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA.

I. IZENBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua- PLANAREN IZENA.

Araudi honek ("Araudia") Alejandro Echevarría enplegu BGAEan ("BGAE" edo "Erakundea") integratzen du izen hau duen Plana: Alejandro Echevarría-Prestazio Zehaztua, Enpleguko Gizarte-Aurreikuspeneko Plana ("Plana").

2. Artikulua- PLANAREN XEDEA.

Araudiak Bazkide Babesleen, bazkide pasiboen eta onuradunen arteko harremanak arautzen ditu, bai eta horien eskubide eta betebeharrak ere, horiek izateak berekin baitakar araudian jasotako arau guztiak onartzea.

3. Artikulua- PLAN MOTA.

Plan hau aurreikuspen-erakunde pribatua, borondatezkoa eta libre da. Bazkideak Planean sartzeko sistemaren arabera, Plana enplegu-sistemaren modalitatean kokatzen da, eta, hitzartutako betebeharren arabera, Prestazio Zehaztuko izango da.

4. Artikulua- PLANAREN XEDEA.

Plan hau mugarik gabeko denborarako eratu da, eta iraupen mugagabea izango du.

II. IZENBURUA

BAZKIDE ETA ONURADUNAK

5. Artikulua- BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK

Talde itxia, 1994/06/11ko langile pasibo eta ondorengo bihurtze bidezko onuradunek osatua.

Planaren bazkide onuradun izango dira, dagokion momentuan, prestazioa jasotzeko eskubidea duten pertsonak, haren bazkideak izan edo ez.

- **Bazkide Sustatzailea:**

Pertsona fisiko edo juridikoak, mota eta izaera guztietakoak, baldin eta haien borondate eraikitzailearekin eta hasierako ekarpenekin Erakundearen sorreran parte hartzen badute, eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, Estatutuetan ezarritako moduan erakundearen Gobernu Organoetako kide badira

Bazkide Sustatzailea Mercedes Benz Espainia SAU da, zeinak egoitza hemen duen: Las Arenas kalea, 1, Gasteiz

- **Bazkide Babesleak:**

Bazkide babesleak izango dira Mercedes Benz Espainia SAU enpresak, haien lantoki hauetan: Gasteiz, Madril eta Mercedes-Benz Retail SA. Baita beste pertsona juridikoak ere, baldin eta haien jarduerarekin eta adostutako ekarpenekin Erakundea mantentzen eta garatzen laguntzen badute, zuzeneko onurarik lortu gabe, baina Erakundearen Estatutuetan ezarritako moduan Gobernu Organoetan parte hartuz.

- **Bazkide pasiboak:**

BGAEn bazkide pasiboak izango dira, bazkide aktibo izan ostean, prestazioaren zuzeneko titular bihurtzen diren pertsonak, kontingentzia gertatu ostean subjektu babestu gisa.

- **Onuradunak:**

BGAEn onuradunak izango dira, eragilearekin duten erlazioa dela eta, kontingentzia gertatu ostean prestazioaren titular bihurtzen diren pertsona fisikoak.

6. Artikulua—BAZKIDEEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

- **Oro har, hauek izango dira bazkide eta onuradunen eskubideak:**

- a) Indarrean dagoen araudiaren arabera, une oro Erakundearen egoerari buruzko informazioa jasotzea. Nolanahi ere, Gobernu Batzarrari informazioa eskatu ahalko zaio, bai idatziz bai ahoz, eta Gobernu Organoek ezingo dute ukatu, salbu eta informazio hori emateak arrisku larrian jartzen baditu Erakundearen bidezko interesak.
- b) Erakundearen Gobernu Organoen bileretan parte hartzea, haien ordezkarien bidez.
- c) Erakundearen xedeekin lotutako neurri edo ekintzak proposatzea, haren funtzionamendua hobetzeko.
- d) Egoki iritzitako kontsulta, proposamen, kexa, errekurtsio edo erreklamazioak aurkeztea; horiek idatziz egin beharko dira eta Gobernu Batzarrari zuzendu, Araudi honetan ezarritako prozedura eta bideen arabera.
- e) Erakundearen Gobernu Organoak osatzen dituzten karguak hautatzea eta horietarako hautatua izatea, Erakundearen Estatutuen arabera.

f) Araudi aplikagarritik, Erakundearen Estatutuetatik eta Araudi honetatik ondorioztatzen den beste edozein.

- **Bazkide Sustatzaileen eta Babesleen berariazko eskubideak honako hauek izango dira:**

a) Erakundearen Estatutuen edozein aldaketa aurrez ezagutzea, baita beste Erakunde batzuekin bat-egiteko, xurgatzeko edo federatzeko prozesuak eta Erakundearen likidazioa aurrez ezagutzea ere.

- **Bazkide pasiboen eta onuradunen berariazko eskubideak honako hauek izango dira:**

a) Eskubidea duten prestazioak jasotzea, Araudi honetan araututakoak, bertan zehaztutako baldintza eta betekizunen arabera.

b) Erakundearen Gobernu Organoetan parte hartzea, haren Estatutuetan ezarritakoaren arabera.

c) Erakundeko kide izatearen, egoera partikularren eta eskubide ekonomikoen zenbatekoaren ziurtagiria eskatzea.

d) Aldizka informazioa jasotzea, indarreko araudian ezarritako baldintza eta epeetan.

- **Oro har, hauek izango dira bazkide eta onuradunen betebeharrak:**

a) Indarrean dagoen araudi aplikagarria, Erakundearen Estatutuetako aginduak eta Erakundearen Gobernu Organoen erabakiak betetzea, betiere estatutuaren aginduak legez baliogabetzen ez baditu.

b) Karguren baterako izendatuak badira, hori onartzea, betiere zailtasun edo arrazoi justifikatuek eragozten ez badute.

c) Pentsiodunek haien bizitzaren errealitatea frogatu beharko dute, hots, "bizi-agiria eta egoera zibila", urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan. Era berean, Kutxabanken edozein bulegotara bertaratu daitezke, eta bertako langile batek fede eman eta beharrezko izapideak egingo ditu. Osasun arrazoiengatik edo ezgaitasunagatik bulegoetara bertaratu ezin badira, medikuaren egiaztagiria berdina balioko du.

Betebehar hori betetzen ez bada, Batzarrak pentsioaren ordainketa etetea erabaki ahalko du betekizun hori zuzendu arte.

Erreklamaziorako gehieneko epea hau da: "bizi-agiria eta egoera zibila" ez aurkeztearen hurrengo urtearen amaiera. Ordutik aurrera behin betiko galduko dira eskubide ekonomikoak.

d) Araudi aplikagarritik, Erakundearen Estatutuetatik eta Araudi honetatik ondorioztatzen den beste edozein.

- **Bazkide Sustatzaileen eta Babesleen berariazko betebeharrak honako hauek izango dira:**
 - a) Ezarritako prestazio ekonomikoen azken hartzaileak diren bazkide osoen interes eta onura soziala, inbertsioak eta Erakundeak eraturako ondarea zaindu eta kontrolatzea, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta administrazio gardena lortzen saiatuz.
 - b) Ezarritako edo etorkizunean ezar litezkeen lege-, araudi- eta estatutu-xedapenak zehatz-mehatz betetzen direla zaintzea.
 - c) Erakundearen helburuak betetzeari eragiten dioten gaietan laguntzea.

- **Bazkide pasiboen eta onuradunen berariazko betebeharrak honako hauek izango dira:**
 - a) Erakundeak eskatzen dizkien datu guztiak eman eta eguneratzea, baita helbide-aldaken berri ematea, haien edo zuzeneko senideen egoera zibileko aldaketak jakinaraztea, eta Erakundearen Estatutuaren arabera beharrezkoak diren dokumentu guztiak ematea ere.
 - b) Prestazioei dagokienez ezartzen diren baldintzak eta izapideak betetzea.

Bazkideek eta onuradunek BGA Eren Gobernu Organoetan parte hartzeari dagokionez, Alejandro Echevarría Enplegu BGA Eren Estatutu etako 7. artikulua ren arabera egingo da.

7. Artikulua- PLANAREN BAZKIDE ETA ONURADUNENTZAKO INFORMAZIOA

Borondatezko Gizarte Aurreikuspen erako Erakundeak, hari atxikita baitago Gizarte Aurreikuspen erako Plana, aurreikuspen-planaren bazkideen eta onuradunen eskura jarriko du informazio guztia, indarreko lege-araudiak ezartzen duen moduan, ekarpenen erabilera eta banakako eskubideen egoera justifikatzeko aukera izan dezaten.

Urtean behin gutxienez, Erakundeak bazkide eta onuradun bakoitzari bidaliko dio emandako prestazioen zenbatekoaren ziurtagiria. Era berean, kudeaketa-txosten laburtu bat bidaliko du, indarrean dagoen legerian ezarritako informazio laburtua jasoko duena.

III. IZENBURUA

PLANERA SARTZEKO EDO BAJA EMATEKO ARAUBIDEA

8. Artikulua—PLANERA ATXIKITZEA.

Bazkide pasiboen eta onuradunen talde itxia, 1994ko ekainaren 11n.

9. Artikulua- PLANAREN BAZKIDE ETA ONURADUNEN BAJA.

Planaren edozein bazkide edo onuradunek baja hartuko dute Erakundearen Estatutuetan aurreikusitako arrazoiengatik.

IV. IZENBURUA

EKARPEN, PRESTAZIO ETA KONTINGENTZIEN ARAUBIDEA

10. Artikulua –PLANAREN FINANTZAKETA.

Gizarte-Aurreikuspenerako Planeko bazkideen eta onuradunen etorkizuneko eskubideak izango dira urtero egiten den azterlan aktuarialean zehaztutakoak, prestazio zehaztuko sistema baita, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Planak hartuko duen sistema finantzario-aktuariala finantza-kapitalizazioarena da, prestazio zehaztuko.

11. Artikulua –EKARPENEN ARAUBIDEA.

Aurreikuspen Planaren baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

- a) Urteko azterlan aktuarialean jasotako betebeharrei atxikitako ondarea, hura osatzen duten bazkide pasibo eta onuradunen kolektiboari buruz egindakoa; eta erabilitako hipotesi aktuarialen etorkizuneko eskakizunei aurre egiteko eraturako beste hornidura batzuk, hartutako betebeharrak amaitu gabe.
- b) Onurak, errentak, diru-sarrerak, edo ondasun sozialek sortutako beste edozein etekin.
- c) Dirulaguntzak, dohaintzak, legatuak, prestazioen okerreko ordainketak berreskuratzea, edo jasotako beste edozein sarrera edo ondasun.
- d) Gizarte Segurantzatik eta gizarte-aurreikuspenerako Erakunde Publikoetatik berreskuratu daitezkeen zenbatekoak.
- e) Erakundearen Estatutuetan jasotako arauak hausteagatik pertsona pasibo eta onuradunei ezarritako kenkariak.

Lehen aipatutako baliabideekin, pertsona pasiboek eta onuradunek sortutako pentsioei erantzungo zaie, eta pertsona pasibo eta onuradunentzat eraturako funtsaren errentagarritasunari buruzko

azterlan aktuarialean jasotako hipotesiak beteko dira; halaber, urteko azterlan aktuarialean erabilitako aldagaietan gerta daitezkeen desbideratzeak ere kontuan hartuko dira, zienak urteetan zehar gerta daitezkeen, kolektiboa azkendu arte.

Sortutako pentsioen egungo balioaren eta azterketa aktuarialean jasotako hornidura matematikoen arteko oreka finantzarioa betetzen ez bada, Gobernu Batzarrak proportzionalki murriztuko ditu pertsona pasiboek eta onuradunek sortutako pentsioak, behar den urteko oreka aktuariala eta finantzarioa lortu arte.

Planaren ondare-balioak azterlan aktuarialean jasotako hornidura matematikoak gainditzen baditu, eta eskatutako hipotesiak betetzen badira, Gobernu Batzarrak baimena eskatu ahalko dio Eusko Jaurlaritzari une horretan Prestazio Zehaztuko Enpleguko Gizarte-Aurreikuspeneko Planean parte hartzen duten bazkideen eta onuradunen uneko pentsioak handitzeko. Era berean, behar bezain ziurra bada aipatutako konpromisoei erantzun ahalko zaiela, edo prestazioa jasotzen duen kolektiboa, Planari atxikitakoa, azkendu delako, Eusko Jaurlaritzari baimena eskatu ahalko zaio soberako zenbatekoa banatzeko, 1994ko ekainaren 11n talde aktiboari mugatutako Asanbladan adostutako moduan. Hori, banaketaren momentuan Erakundeko bazkide izaten jarraitzen dutenen artean egingo da, modu proportzionalan, honako hauek kontuan hartuta: ordaindu zuten denboratik eratorritako eskubide ekonomikoak eta 1994/06/11ko indarreko kuotak.

Plan honen berezitasunagatik eta idazkera honek etorkizunean izan ditzakeen aldaketengatik, puntu hau 1994ko ekainaren 11ko talde aktiboari blindatuko zaio eskusiboki.

Aurreko c) eta e) letretan adierazitako zenbatekoak banku-transferentzia bidez baino ez dira kobratuko, eta, hori, bazkidearen Aurreikuspen Planaren kontura egingo da.

12. Artikulua- BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA

Erakundeko Gobernu Organoek urtero eskatuko dute azterketa tekniko-aktuarial bat egitea, harekin Planaren bideragarritasun teknikoa egiaztatu eta bermatzeko.

13. Artikulua- PRESTAZIOEN ARAUBIDEA.

Prestazio horien bidez, Planaren bazkide eta onuradunei eskubide ekonomikoa aitortuko zaie, erakundeak bertan estalitako kontingentzia gertatzearen ondorioz.

Pentsioak, kalte-ordainketak, prestazioak eta Erakundeak aitortutako beste eskubideak bateragarriak izango dira interesatuak bere kabuz artatzen duen beste edozein aurreikuspen-modalitaterekin, edota beste aurreikuspen-erakunde batzuek aitortutako eta haiengandik lortutako eskubideekin.

Onuradunak borondatez uko egin ahalko dio aitortuta dituen hatzekoak jasotzeari; horretarako, Gobernu Batzarrari idatziz jakinarazi beharko dio.

Prestazioak banku-kontuan bakarrik ordainduko dira, eta kontu horren titularra bazkidea edo, hala badagokio, onuraduna izan beharko da.

14. Artikulua- PLANAK ESTALITAKO KONTINGENTZIAK.

Plan honek estalitako kontingentziak, prestazioak ordaintzea dakartenak, hauek dira:

- Erretiro-prestazioa.
 - Ezintasun iraunkorragatiko prestazioa.
 - Pentsiodunen eskubidedunen aldeko prestazioa.
- a. **Erretiro-prestazioa.** 1994ko ekainaren 11n erretiro-prestazio bat jasotzen duten bazkideek, biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea izango dute, aitortu zaien zenbatekoan eta moduan, betiere oreka aktuariala eta finantzarioa badago.
- b. **Ezintasunagatiko prestazioa.** 1994ko ekainaren 11n ezintasunagatiko prestazio bat jasotzen duten bazkideek, biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea izango dute, aitortu zaien zenbatekoan eta moduan, betiere oreka aktuariala eta finantzarioa badago.
- c. **Pentsiodunen eskubidedunen aldeko prestazioa.** Pentsiodun bat hiltzen bada, BGAEk aitortutako pentsioaren % 75 eskualdatuko zaie haren eskubidedunei, jarraian deskribatutako modalitateetan:

1. *Pentsiodunaren alargun izateagatiko prestazioa.* 1994ko ekainaren 11n pentsio baten titularra den pertsonaren ezkontidea zenak alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubidea izango du, zeina titularrak hil zenean jasotzen zuen pentsioaren % 75 izango den.

Alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubidea galduko du:

- a) Ezkontideak, ezkontza-banaketa auzitegi eskudunaren epai irmoaren bidez ezarri bada.
 - b) Ezkontideak, bere borondatez, bi urte edo gehiago badaramatza ezkontza-egoitzatik kanpo. Egoera horren egiaztagiri izango da prestazioaren titularrak egindako adierazpen sinatua edo erakunde eskuduneari aurkeztutako salaketa.
 - c) Berrito ezkondu den alargunak.
 - d) Erljioan sartu den alargunak.
 - e) Gobernu Batzarrak salbuespenezko egoerak aztertu ahalko ditu, behar bezala dokumentatua eta justifikatuta badaude.
2. *Zurztasun-prestazioa eta horren iraupena.* Zurztasun-prestazioa jasotzeko eskubidea izango dute hildako pentsiodunaren eta 1994/06/11ko haren ezkontidearen ezkontzako seme-alabek. Zurztasun-pentsioaren iraupena hau izango da:
- a) 18 urte bete arte.
 - b) Adin horretatik aurrera, pentsio hau baliatzeko eskubidea izango dute erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak egiten dituztenek, bai eta Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasketak egiten dituztenek ere, gehienez, 25 urtera arte, salbu eta fisikoki eta mentalki ezgaituta

daudenak; azken horiek mugarik gabe gordeko dute eskubidea, ezintasuna behar bezala egiaztatzen bada.

Pentsioaren zenbatekoa hildako pertsonaren pentsioaren % 10 izango da seme-alaba bakoitzeko, baina alargun-pentsioen eta seme-alaba bakoitzari dagokion pentsioaren guztizkoak ez du inola ere aipatutako pentsioaren % 100 gaitutuko.

Erabateko zurtasun-pentsioa jasotzeko eskubidea dute hildako pentsiodunaren seme-alabek, baldin eta aita eta amaren umezurtz badira, edo hildako pentsioduna bananduta badago Auzitegi eskudunaren epai irmo bidez. Prestazioa hildakoaren pentsioaren % 75 izango da, eta pentsio horren onuradun den seme-alaba nagusiari egokituko zaio. Seme edo alaba horrek, gainera, % 10eko pentsioa jasoko du anai-arreba bakoitzeko, aurreko artikuluan ezarritako baldintzen arabera. Pentsio horiek, guztira, ez dute gaitutuko titularrak zuen pentsioaren % 100.

Hildako titularrak seme-alabak uzten baditu, eta horiek etxebizitza desberdinetan bizi badira, haien artean zati berdinetan banatuko da errenta, zeina % 75 gehi gainerako anai-arreba bakoitzaren % 10 batuz lortzen den. Nolanahi ere, umezurtz batek jasotzeari uzten dion errenta-zatiak zati berdinetan handituko du gainerakoek jasoko dutena, haren zurtasun-pentsioari dagokion % 10 kenduta; horien guztien zenbatekoak ez du titularraren pentsioaren % 100 gaitutuko.

Erabateko umezurtz adingabeei dagokien pentsioa tutoreari edo legezko ordezkariari emango zaio, eta haren ardura izango da pentsioa umezurtz onuradunen artean banatzea.

3. *Gurasoen aldeko prestazioa.* Prestazioa jasotzeko eskubidea duen emazterik, senarririk edo seme-alabarik ez duen titularrak haren gurasoen aldeko pentsio bat sortzea eragingo du, baldin eta hirurogeitaka urte badituzte edo baliaezinak badira, eta seme-alabak hildakoan hark ematen zizkien biziraupen-baliabideez gain besterik ez badute. Gobernu Batzarrari dagokio kasu bakoitzeko inguruabarrak aztertzea eta balioestea. Pentsioaren zenbatekoa hildakoarenaren % 75 izango da, eta, ezkontideetako bat hiltzen denean, guztia izango da bizirik gelditu denarentzat.
4. *Anai-arreben aldeko prestazioa.* Bazkidea hiltzen denean ez badu errenta jasotzeko eskubidea duen emazterik, senarririk, seme-alabarik edo gurasorik, horiei legokiekeen pentsioa hemezortzi urtetik beherako anai-arrebei eta/edo lanerako erabat ezgaituta daudenei emango zaie, baldin eta, Gobernu Batzarraren iritziz, modu iraunkor eta egonkorrean hildako pertsonaren kontura eta haren etxean bizi baziren, edo, ezindua izan gabe, ez badute inolako pentsio edo errenta jasotzeko eskubidea, ezta beste bizibiderik ere.

Anai-arrebek pentsioa jasotzeko eskubidea galduko dute beren kontura edo besteren kontura lanean hasten badira, ezkontzen badira, edo erlijioan sartzen badira. Pentsio hau azkendu egingo da haren titularra hiltzen denean.

Anai-arreba adingabeei legokiekeen pentsioa haien tutoreari edo legezko ordezkariari emango zaio, eta pentsioa jaso duen pertsonaren kontura geratuko da hura onuradunen artean banatzea.

Pentsioa jasotzeko eskubidea duten anai-arrebak ez badira etxebizitza berean bizi, pentsioa zati berdinetan banatuko da onuradunen artean.

15. Artikulua- PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODUA

Prestazio Zehaztuko Planari atxikitako bazkideek bihurtzeko edo aldi baterako pentsioak jasotzeko eskubidea izango dute, hala badagokio, aitortuak dituzten zenbatekoan eta moduan, betiere talde horrentzat Estatutuaren 10. artikulua eskatzen duen oreka aktuariala eta finantzarioa badago.

Prestazioa jasotzeko eskubidea duen onuradunak idatziz egin beharko du eskubidea, eta dagokion dokumentazioarekin batera aurkeztu (dokumentazio hori araudi honen 16. artikuluan dago jasota). Prestazioa Erakundearen Gobernu Batzarrak onartu beharko du.

16. Artikulua- ESKUBIDE EKONOMIKOAK ESKATZEA.

Titularra hiltzen bada, Plan honen eskubide ekonomikoak eskatzeko dokumentazio hau aurkeztu behar da:

1. Heriotza-ziurtagiria.
2. Erregistro Zibilak emandako ezkontza-ziurtagiria.
3. NANaren fotokopia (onuraduna).
4. Onuradunaren bizi-agiria, ezin bada eskaera sinatzera joan.
5. Pentsioa ordaindu behar den kontu zenbakia (eta, Kutxabankekoa ez bada, titulartasun-ziurtagiria).

Eskaera hau egiteko behar den dokumentazioa Kutxabanken edozein sukurtsaletan eman behar da, ahal izanez gero aholkulari pertsonalaren bidez, eta, hori egin ezean, hona bidali behar da: Alejandro Echevarría Enplegu BGAE, Las Arenas kalea 1, 01015 Gasteiz.

Dokumentazio hori jasotakoan, Gobernu Batzarrak hurrengo bileran berrikusiko du, eta Erakunde Kudeatzaileari jakinaraziko dizkio adostutako erabakiak.

17. Artikulua- ONURADUNAK IZENDATZEA.

Taldearen ezaugarriak, plan mota eta bertan hitzartutako betebeharrak kontuan hartuta, onuradunak izango dira taldea ixten denen egunean izendatutakoak, 1994/06/11.

18. Artikulua- INBERTSIO-POLITIKA

Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundearen sartuta dagoen Gizarte Aurreikuspenerako Planak taldearen alde sortutako eskubideek osatzen dituzten baliabideekin egin beharreko inbertsio-politika proposatuko du; hori indarrean dagoen legezko eskakizunetara egokituko da une oro, eta bat etorriko da BGAeren Inbertsio Printzipioen Adierazpenarekin.

V. IZENBURUA

ESKUBIDE EKONOMIKOEN ERRESKATEA ETA MOBILIZAZIOA

19. Artikulua- ESKUBIDE EKONOMIKOEN ERRESKATEA ETA MOBILIZAZIOA

Eskubide ekonomikoaren erreskatea

Plan motak ez du ahalbidetzen espero diren eskubideen erreskatea.

Eskubide ekonomikoaren mobilizazioa

Plan motak ez du ahalbidetzen espero diren eskubideak mobilizatzea.

VI. IZENBURUA

ADMINISTRAZIO-GASTUAK

20. Artikulua- PLANAREN ADMINISTRAZIO, KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Planari egotzi beharreko administrazio-, kudeaketa- eta funtzionamendu-gastuak urteko hornidura matematikoen % 0,2309 izango dira, eta ezingo dute inola ere ehuneko hori gainditu.

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Erakundeak onartu eta ezagutaraziko ditu ekitaldi bakoitzerako aurreikusitako gastuak, bai eta aurreko ekitaldiko emaitzak ere.

VII. IZENBURUA

BALORE-GORDAILUA ETA KONTABILITATE ETA AUDITORETZA SISTEMA

21. Artikulua- BALORE-GORDAILUA

Emandako baliabideen inbertsioa gauzatzeko balio edo aktibo finantzarioak hemen gordailutuko dira: CECABANK, S.A.

22. Artikulua- KONTABILITATE ETA AUDITORETZA SISTEMA

Planaren kontabilitatea modu argian eta zehatzean egingo da, indarrean dagoen merkataritza-araudiaren arabera, une oro haren benetako ekonomia-egoera ezagutu ahal izateko; haren

ekonomia-zikloa urte naturalarekin eta orokorrean onartutako kontabilitate irizpideen arabera doituko da.

Kontabilitate-erregistroek aukera eman behar dute, edozein kasutan, Prestazio Zehaztuko Planaren, Ekarpen Zehaztuko Planaren eta Erakundeak sar ditzakeen planen ondare-egoera bereziak ezagutzeko, Estatutuen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontabilitate-liburuak, baita araubide onerako Erakundeak eraman beharreko guztiak ere, hori egiteko eskumena duen agintaritzak baimendu eta bideratu beharko ditu.

Erakundearen urteko kontuak aditu independenteek ikuskatu beharko dituzte, legez ezarritako moduan.

Aktibo finantzarioei, non hornidura teknikoak gauzatzen diren, aplikatu beharreko balorazio-sistema errealizazio-balioa izango da, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioarentzat.

VIII. IZENBURUA

ARAUDIA ALDATZEA

23. Artikulua- ARAUDIA ALDATZEA

Araudi hau aldatzeko, Erakundearen Gobernu Batzarrak hori proposatu eta onartu beharko du; ondoren, Eusko Jaurlaritzari aurkeztu, eta hark baimendu eta erregistratu egin beharko du.

IX. IZENBURUA

PLANA AZKENTZEKO ARRAZOIAK ETA ONDAREAREN ERABILERA

24. Artikulua- PLANA AMAITZEA ETA LIKIDATZEA

Plana desegin ahalko da, horretarako bildutako Asanblada Orokorraren erabakiz, honako arrazoi hauetako batengatik:

- a) Haren helburua edo xede soziala desagertzen denean.
- b) Bazkide pasibo edo onuradunak, egonez gero, desagertzeagatik.
- c) Beste Erakunde batzuekin bat egiteagatik edo xurgatzeagatik.
- d) Gobernu Batzarraren proposamen arrazoitua eta Asanblada Orokorrak horretarako egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiagatik. Akordio hori balioduna izan dadin, beharrezkoak izango dira Asanblada Orokorreko kideen aldeko botoak, gehiengo kualifikatuarekin: lehenengo deialdian zein bigarrenean, bertaratzen diren bazkideen bi heren.

Asanblada Orokorrak Likidazio Batzorde bat izendatuko du, beharrezko izapideak bete eta gainbegiratu ditzan, eta haren partaide kopurua nahitaez bakoitia izango da. Besterik erabaki ezean, honako hauek izendatuko dira Likidazio Batzordea osatzeko: Presidente, Idazkaria, Diruzaina, Barne-Auditorea eta Bazkide Babesleen ordezkari bat. Pertsona horiek ez dute inolako ordainsaririk jasoko.

Likidazio Batzordeak une horretan indarrean dagoen legerian aurreikusitako moduan egingo du likidazioa, eta legez eta estatutuetan ezarritakoa beteko du, bazkideen eta onuradunen egoerari, hala badagokio, eta gizarte-funtsen xedeari dagokionez.

Bazkide pasibo eta onuradun bakoitzaren alde sortutako eta metatutako eskubide ekonomikoen balioa onartu aurretik, likidazio-prozesutik eratorritako gastuei aurre egin beharko zaie.

Bestalde, Prestazio Zehaztuko planaren erabateko likidaziorako, Alejandro Echevarría Enpleguko BGAEaren Estatutuetako 10. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Likidazio hori une bakoitzean indarrean dauden legezko betekizun eta izapideetara egokituko da.

IX. IZENBURUA

GATAZKA ETA ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA

25. Artikulua- GATAZKA ETA ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA.

Bazkideek eta onuradunek idatziz aurkeztu ahalko dizkiote Gobernu Batzarrari beren kexak eta erreklamazioak, legez onartutako interes eta eskubideekin lotutakoak.

Gobernu Batzarrak, hala badagokio, hari zerbitzu profesionalak ematen dizkioten pertsona fisiko edo juridikoei eskuordetu ahalko die dagokion ebazpena hartzeko zeregina.

Gobernu Batzarraren erabakia ez da oztopo izango babes judizial osoa izateko, ezta administrazioaren kontrol- eta gainbegiratze-eginkizunak betetzeko ere.

Aurrekoa gorabehera, kexa edo erreklamazioa Asanblada Orokorraren edo Gobernu Batzarraren erabaki baten ondorio bada, Erakundearen estatutuetan xedatutakoa aplikatuko da.

